

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Xabier Ocariz Dorado Arratzua-Ubarrundiako Udaleko administrari laguntzaile lanposturako praktiketako funtzionario izendatzea

Alkatetzaren 2025eko otsailaren 28ko 60/2025 Dekretuaren bidez (hutsen zuzenketa, Alkatetzaren martxoaren 3ko 63/2025 Dekretua), ebazpena onartu zen, eta xedapen-zatia honela dio hitzez hitz:

Lehenengoa. Xabier Ocariz Dorado praktiketako funtzionario izendatzea administrari laguntzaile lanposturako (eskala: administrazio orokorra; azpieskala: administrari laguntzailea), 2025eko otsailaren 28tik aurrerako ondorioak, eta hilabeteko epea izango du, izendapena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, legez ezarritako zin edo promesa egiteko eta korporazioko idazkariaren aurrean lanpostuaz jabetzeko.

Bigarrena. Praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak egoera horretan jarraituko du karrerako funtzionario izendatu edo hautaketa-prozesutik kanpo utzi arte.

Hirugarrena. Praktikaldia oinarri orokorretako 16. oinarrian eta urriaren 1eko 291/2024 Alkatetza Dekretuaren bidez onartutako probaldiari buruzko Jarraibidean xedatutakoaren arabera arautuko da.

Laugarrena. Udaleko idazkari kontu-hartzailea izendatzea praktiken tutore/ikuskatzaile, aipatutako instrukzioko 4. artikuluan ezarritako eginkizunekin.

Bosgarrena. Ebazpen hau iragarki-oholean, web-orrian eta ALHAOn argitaratzea.

Durana, 2025eko martxoaren 3a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE